


Heldu zen ostirala, eta beste askok bezala, Iratik ere etxetik atera ezinda jarraitzen zuen. Burua, ordea, kanpoan zuen: etxetik kanpo.

Horma-sugandilak esan bezala, inguruko mugimendu, usain eta soinua aurkitu nahian hasi zen Irati. Hala, ez zitzaion asko kostatu airean mugitzen zen animalia txikia ikustea. Zitzu bizian eta motor txiki baten soinua bailitzan, hegoak dar-dar batean astintzen zihoan: euren etxe inguruan zebilen erlea, gereziendoaren lorera bidean. Lorea gerezi bihurtzeko agindua emango zuena zen bera. Magia egiten zuena.

Erleak loreko nektarra, bere elikagaia, jan eta etxeko leihora etorri zen.

- Egun on, Irati. Herri inguruko mendietatik nator. Berri ederrak ditut!! Eta gereziendo zaharrak zuri ere esateko eskatu dit: jakin ezazu, baserri inguruetako zelaiak hasi direla pixkanaka loratzen, eta berde kolorekoa zena, gorri, hori eta urdin kolorez hasi dela janzten.
- Ze pena, eta ni etxean sartuta...
- Lasai egon, Irati. Egun gutxi barru, gereziendo zaharraren azpiko belarra ere hazten hasiko da. Lorezainak etxean dira asko, eta landareak hazten joango dira, eta loreak ateratzen!
- Bai, erle! Eta loreekin batera etorriko dira zuen lagun zomorroak, eta zomorroen atzetik... hegaziak!
- Naturak ez du sekula lo egiten, Irati, baina pixkanaka, hemendik aurrera gero eta gehiago izango gara zure etxe inguruan! Ireki ondo begiak eta alaitu arima. Egun ederrak dituzu aurretik eta!!



Heldu zen ostirala, eta beste askok bezala, Iratik ere etxetik atera ezinda jarraitzen zuen. Burua, ordea, kanpoan zuen: etxetik kanpo.

Horma-sugandilak esan bezala, inguruko mugimendu, usain eta soinua aurkitu nahian hasi zen Irati. Hala, ez zitzaion asko kostatu airean mugitzen zen animalia txikia ikustea. Ziztu bizian eta motor txiki baten soinua bailitzan, hegoak dar-dar batean astintzen zihoan: euren etxe inguruan zebilen erlea, gereziendoaren lorera bidean. Lorea gerezi bihurtzeko agindua emango zuena zen bera. Magia egiten zuena.

Erleak loreko nektarra, bere elikagaia, jan eta etxeke leihora etorri zen.

- Egun on, Irati. Herri inguruko mendietatik nator. Berri ederrak ditut!! Eta gereziendo zaharrak zuri ere esateko eskatu dit: jakin ezazu, baserri inguruetako zelaiak hasi direla pixkanaka loratzen, eta berde kolorekoa zena, gorri, hori eta urdin kolorez hasi dela janzten.
- Ze pena, eta ni etxean sartuta...
- Lasai egon, Irati. Egun gutxi barru, gereziendo zaharraren azpiko belarra ere hazten hasiko da. Lorezainak etxean dira asko, eta landareak hazten joango dira, eta loreak ateratzen!
- Bai, erle! Eta loreekin batera etorriko dira zuen lagun zomorroak, eta zomorroen atzetik... hegaziak!
- Naturak ez du sekula lo egiten, Irati, baina pixkanaka, hemendik aurrera gero eta gehiago izango gara zure etxe inguruan! Ireki ondo begiak eta alaitu arima. Egun ederrak dituzu aurretik eta!!

Ausartu zure marrazkia sortzera!

